



ANDOAINGO UDALA



Bosgarren edukiontzia ezarri zenetik lau hilabetetara, lehen balantzea egin du Andoaingo Udalak

Pasa den urrian urrats garrantzitsua eman zuen Andoaingo herriak herri jasangarriago bat izateko bidean; bosgarren edukiontzia ezarpenarekin, materia organikoa ere modu selektiboan batzeko urratsa eman genuen, eta bost hilabete pasa diren honetan, lehen balantzea egiteko garaia iritsi zaigu.

Momentu honetan bosgarren edukiontzia 2400 erabiltzaile ditugu; horien artean daude partikularrak eta sortzaile bereziak. Jakina den moduan, bosgarren edukiontzia ezarri aurretik, gaikako bilketaren portzentaiaren datua ez zen oso altua; zehazki, 2016ko urtarrilean, %29,76koa zen. 2016ko abenduan, ordea, bosgarren edukiontzia ezarri eta lau hilabetetara, datua aise hobetzea lortu da: zehazki, %45,6koa izan zen gaikako bilketaren portzentaia. Urteko batz bestekoa, beraz, %30ean geratu da.

Igoera horrek ahalbidetu du zabortegira bideratzen den errefuxa %23,25an gutxitu ahal izatea, eta datua hobetu badaiteke ere, bide zuzenetik goaz. 2016. urtean andoaindar bakoitzak batz beste 315kg hondakin sortu ditu, hauetatik 98kg gaikako bilketa bitartez berreskuratu direnak.

Esan bezala, beti dago zer hobeturik, baina datu hauek erakusten digute gaikako bilketa sistema norabide egokian doala gure herrian. Zentzu horretan, zaborrak gaika biltzeko urratsa eman duten herritarren partaidetza zoriondu eta eskertu nahi dugu; baita parte hartzen ari diren sortzaile bereziei ere. Azken hauen artean batzuk animatu badira ere, datozen asteetan ahalegin berezia egingo dugu sistema berrira are eta gehiago batu daitezen. Izan ere, oro har, herritarren konpromisorik gabe ezinezkoa dugu datuak hobetzen joatea. Azpimarratu nahiko genuke badirela oraindik txartela eskuratu bai, baina erabiltzeko urratsa eman ez dutenak. Horiei guztiei dei egin nahi diegu hurrengo urratsa ematera animatu daitezen eta erabil dezaten. Eta era berean, oraindik bere txartela eskuratu ez duten horiei ere dei berezia egiten diegu udaletxera gertura eta informazio-gunean berea eskuratu dezaten. Ildo berean, gogorarazi nahiko genuke organikoaren sailkapena ongi egin ahal izateko poltsa konpostagarriak erabiltzea beharrezko dela; Udalak doan banatuko ditu poltsa hauek otsailaren 15etik aurrera, eta horretarako, txartelarekin udaletxera azaldu beharko dira herritarrek, hiru hilabetero 2 pakete banatuko direlarik.

Beraz, esandako guztiarekin zera azpimarratu nahi dugu: asko hobetu dugu eta bide onean goaz, baina ez gaitzala loak hartu. Ziur gaude sistema honetara herritar gehiago animatuz gero, datuak aise hobetzea lortuko dugula eta ondorioz, leloak dioen bezala, guztion artean herri jasangarriago bat lortuko dugula.

Andoainen, 2017ko otsailaren 10ean